



## AKTEA/17

## BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

(2022-05-24)

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2022-05-24 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:40
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:45
<b>Alkate-Presidentea:</b>	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ
<b>Batzordekideak:</b>	PLATAS ARENAZA M. IDOYA LEIZAOLA ZULUETA MAITANE LEGARRETA ERKIAGA IBON ZUMETA GARRO KEPA
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	ZUMETA GARRO ALAZNE
<b>Idazkaria:</b>	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Data: 24/05/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3



## Aztergaiak


- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2022-05-17 TGB (16)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- 2022. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Lea-Artibaialdeko Hedabideak SLgaz hitzarmena sinatzea onartzea.
- 4.- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bermeoko Udalaren arteko Gaztedi Busturialdea lankidetzahitzarmena sinatzea onartzea.
- 5.- Bermeoko Udalaren eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa CECOBIn arteko lankidetzahitzarmena sinatzea onartzea.
- 6.- Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa fakultatea eta Bermeoko Udalaren artean sinatutako hezkuntza-lankidetzahitzarmena onartzea.
- 7.- Ertzaintza eta Bermeoko Udaleko udaltzaingoaren arteko lankidetzahitzarmena sinatzea onartzea.
- 8.- Umea zaintzeko lanaldiaren murrizketa eteteko eskaria onartzea.
- 9.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 10.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2022-05-17 TGB (16)

Bertaratutako batzarkideek 2022ko maiatzaren 17ko 16/2022 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Datea: 24/05/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSY: 07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3



Maitane Leizaolak 4. puntuan "Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bermeoko Udalaren arteko Gaztedi Busturialdea lankidetzeta-hitzarmena sinatzea onartzea" interesa daukala adierazi du.

### 3.- 2022. URTERAKO UDAL AURREKONTUAN AURREIKUSITA DAGOEN DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA BIDERATZEKO, LEA-ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK SLGAZ HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

#### Xedea

2022. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Lea-Artibaialdeko Hedabideak SLgaz hitzarmena sinatzea.

#### Aurrekariak

Lehenengoa: 2022. urterako udal Aurrekontuan, Lea-Artibaialdeko Hedabideak SLren aldeko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da eta, ondorioz, dirulaguntza bideratzeko hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2022ko apirilaren 8an, Euskera Saileko teknikari-trebatzaileak eta Idazkaritza Saileko AOTk, hitzarmenaren Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon eben hurrenez hurren.


Hirugarrena: 2022ko maiatzaren 3an, kontu hartzaileak fiskalizazio txosten emon eban.

#### Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau bere 5. artikulua, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. Artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. Artikulua eta Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikulua f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

#### Erabakia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Data: 24/05/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** 2022. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Lea-Artibaialdeko Hedabideak SLgaz hitzarmena sinatzea onartzea.

**BIGARRENA:** Hitzarmena sinatu aurretik, kontu hartzaileak bere txostenean adierazotakoak betetzen dirala bermatu beharko da.

**HIRUGARRENA:** Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

**LAUGARRENA:** Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

**BOSGARRENA:** Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

Maitane Leizaola batzar gelatik irten da.

#### 4.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO GAZTEDI BUSTURIALDEA LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

##### Xedea

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bermeoko Udalaren arteko Gaztedi Busturialdea lankidetzahitzarmena sinatzea onartzea, Busturialdean 2022-2023 aldian gazteriaren arloko politika integrala ezarri, bultzatu eta garatzeko

##### Aurrekariak


**Lehenengoa:** 2011ko abenduaren 14an, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL), 'Gaztedi Bizkaia' Bizkaiko Lurralde Historikoko toki eremuan gazteriaren arloko politika integralak koordinatzeko organo bezala ezarri, sustatu eta garatzeko lankidetzahitzarmena sinatu eben.

**Bigarrena:** Proiektu horren barruan, 'Udal Gaztedi' parte-hartzeko udal egiturea dago. Egitura horren xedea da gune aholku-emailea izatea, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan gazteriaren arloko politiken inguruko neurriak planifikatu eta garatzeko, udalen eta foru erakundearen arteko esku-hartze integral eta partekatu bat lortzeko.

**Hirugarrena:** Bermeoko Udalak, 2012ko ekainaren 25ean izandako Osoko Bilkurean, 'Udal Gaztedi'-ra atxikitzea erabagi eban.

**Laugarrena:** Bermeoko Udalak, 2017ko maiatzaren 8ko 703. zenbakidun Alkatetzaren

4



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

##### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Data: 24/05/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3



Dekretuaren bidez eta maiatzaren 29an burututako Osoko Bilkuran berretsita, 'Gaztedi Bizkaia 2020' proiektuaren barruan kokatuta dagoan 'Gaztedi Busturialdea' lankidetzaren hitzarmena onartzea eta sinatzea erabagi eban, 2017-2019 aldirako.

Bosgarrena: Bermeoko Udalak, 2020ko uztailaren 7an izandako Tokiko Gobernu Batzarrak 'Gaztedi Busturialdea' lankidetzaren hitzarmena onartzea eta sinatzea erabagi eban, 2020 urterako.

Seigarrena: Bizkaiko Foru Aldundiak, 2022-2023 aldiran gazteriaren arloko politika integrala ezarri, bultzatu eta garatzeko Gaztedi Busturialdea lankidetzaren hitzarmena prestatu dau.

Zazpigarrena: Lankidetzaren hitzarmen honen xedea lankidetzarako esparrua ezartzea da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gauegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrietako udalen artean, «GAZTEDI BUSTURIALDEA» proiektua garatzeko eta burutzeko, udalerrri horietako gazteriaren arloko politika integrala ezarri, sustatu eta garatu, gazteriaren arloko 'BIZKAIA GAZTEAK' estrategiarekin bat etorri.

Zortzigarrena: 2022ko maiatzaren 5ean, Gazteria teknikariak justifikatze memoria egin dau.

Bederatzigarrena: 2022ko maiatzaren 5ean, Idazkaritzako AOTk txosten juridikoa egin dau.

Hamargarrena: Gastuak, beharrezko atxekipena dauka (RC 2022/354).

Hamaikagarrena: 2022ko maiatzaren 12an, Kontuhartzaileak fiskalizazio txostena egin dau.

## Argudioak

Lehenengoa: Lankidetzaren hitzarmen hau ez dago Arlo Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean arauturiko kontratuen artean, izan be, bere barne hartzen dauzen erakundeen helburua ez da merkatua, eta hitzarmenaren helburua erakundeen arteko koordinazioa bermatzeko lankidetzaren arautzea da.

Bigarrena: Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen duan 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira.

Hirugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmena alkateari jagoko, Toki Erregimena arautzen duan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. f) eta s) artikuluen arabera, baina 2022ko martxoaren 7ko 703 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengana dago delegatuta.

## Erabakia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Data: 24/05/2022  
Lekua: Bermeo  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** 2022-2023 aldian gazte-politika integralak ezarri, bultzatu eta garatzeko Udal Gaztedi Busturialdea lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartzea.

**BIGARRENA:** Bizkaiko Foru Aldundiari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daian.

**HIRUGARRENA:** Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Kontabilitateari erabagiaren barri emotea.

**LAUGARRENA:** Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

Maitane Leizaola batzar gelara sartu da.

## 5.- BERMEOKO UDALAREN ETA BIZKAIKO MERKATARITZAKO ENPRESARI KONFEDERAZIOA CECOBIREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

### Xedea

Bermeoko Udalaren eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa CECOBIREN arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

### Aurrekariak


**Lehenengoa:** Bermeoko Udalaren ardatz nagusienetarikoa bat herriaren garapen ekonomikoa sendotzea da eta helburu hau lortzeko ezinbestekoa da dauden jardura ekonomikoei eskualdatzea prozesuan laguntza eskeintzea.

**Bigarrena:** CECOBIRI "Enpresen Eskualdaketa" izeneko programa bat egiten ari da. Programa horren helburua da enpresa lagatzeko asmoa duten pertsonak harremanetan jartzea jardura edo negozio berri bat hasteko interesa duen ekintzaileekin.

**Hirugarrena:** Bermeoko enpresa txikientzat oso lagungarria izango da "Enpresen Eskualdaketa" proiektua euren enpresa lagatzeko prozesuan tresna erabilgarri modura ikusteko eta beste aldetik, ekintzailetza sustatzea ere lortuko da. Hau dela eta aukera gisa ikusten da "Enpresen Eskualdaketa" proiektuaren parte izatea.

**Laugarrena:** 2022ko maiatzaren 17an, Idazkaritza Saileko AOTk, txosten juridikoa egin du.

**Bosgarrena:** 2022ko maiatzaren 12an, Behargintzako zuzendariak hitzarmenaren justifikatze



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Data: 24/05/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3



memoria egin du.

## Argudioak

**Lehenengoa:** Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeko bere 5. artikulua, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikulua eta Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak, eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 28.1 artikulua hartu dira kontutan.

**Bigarrena:** Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauan 7/1985 legearen 21.1.s) artikulua araberak, alkateari jagoko ez dagoelako beste organo bateri emonda, baina 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

**Hirugarrena:** CECOB I eta Bermeoko Udalaren arteko lankidetzaren baldintzak zehazteko hitzarmen bat hitzartzea ezinbestekoa ikusten da, alde bien betebeharrak eta eskubideak jasotzeko, besteak beste.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA:** Bermeoko Udalaren eta CECOB Iren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.


**BIGARRENA:** Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

**HIRUGARRENA:** Idazkaritza Sailari, erabagiaren barri emotea.

**LAUGARRENA:** Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

## 6.- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEAN SINATUTAKO HEZKUNTZA-LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.

## Xedea



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Data: 24/05/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Ikastegiaren eta Bermeoko Udala erakundearen arteko hezkuntza-lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

### Aurrekariak

**Bakarra:** Lankidetzaren hitzarmen honen bidez ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie eta Bermeoko Udalak, ahal duen heinean, horrelako praktikak egiteko aukera ematea interesgarri ikusten du, formakuntza egokia lortzeko beharrezkoa baita.

### Argudioak


**Lehenengoa:** Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen du bere 5. artikuluan:

“Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes”.

**Bigarrena:** Eskumenen gainean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. artikuluan, honakoa dio:

“1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: {...}

1. Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
2. Espazio publikoetan bizikidetzaren harremanak antolatzea eta kudeatzea.
3. Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
4. Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
5. Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
6. Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
7. Etxebizitzaren plangintza, programazioa eta kudeaketa.
8. Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.





9. Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.
10. Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
11. Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea.
12. Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
13. Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
14. Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
15. Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabilerako uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa.
16. Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.
17. Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.
18. Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa garraiobidea edozein dela antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerrriaren barruan egiten bada osorik.
19. Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
20. Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
21. Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.
22. Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.
23. Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatze-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.
24. Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
25. Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.
26. Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Data: 24/05/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3



27. Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.
28. Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.
29. Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.
30. Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.
31. Udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).
32. Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu motordun zein bestelako eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko irizitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.
33. Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
34. Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.
35. Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerriartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrira eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
36. Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
37. Garapenerako lankidetzan alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea."

**Hirugarrena:** Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Fecha: 24/05/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia

CSV: 07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3



Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari dagokio, ez dagoelako beste organo bateri emonda, baina 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta. Onarpen hau hitzarmena sinatu aurretik egin behar da.

### Erabakia

Hori guztia dela eta, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA: \*\*\*4094\*\* NAN zenbakidunaren eskaria onartzea.

BIGARRENA: EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen eta Bermeoko Udalaren arteko hezkuntza-lankidetzak hitzarmena onartzea eta, horretarako, alkatea ahalmentzea.

HIRUGARRENA: Interesdunari erabakia jakinaraztea.

## 7.- ERTZAINZA ETA BERMEOKO UDALEKO UDALTZAINGOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

### Xedea

Ertzaintza eta udaltzaingoa elkarlanean aritzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, Segurtasun Sailaren Bitartez, eta Euskadiko udalen arteko lankidetzak hitzarmena.


### Aurrekariak

Bakarra: Euskal polizia-eredua Euskadiko Poliziak osatzen du, eta hori Ertzaintzak (erakunde komun mendeko polizia integrala) eta Euskadiko udalerrietako udaltzaingoa osatzen dute.

Talde bakoitzari esleitu zaizkion funtzioei dagokienez, ereduaren koherentzia sustatzeko, beharrezkoa da polizia-indarrak elkarren osagarri izateko formulak bilatzea, elkarrekiko harremana eta lankidetzak erraztuko duten mekanismoak ezarri.

### Argudioak

Lehenengoa: Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke ekainaren 28ko 15/2012 Legearen (aurrerantzean, 15/2012 Legea) 42. artikulua eta ondorengoaren arabera, betebeharrak dituzte bi polizia-indar horiek: elkarri laguntza eta informazioa ematea; biek erabiltzeko komunikazio-sare bat sortu eta mantentzea eta komunikazio zentralen interkonexioa erraztea;



Udaltzaingoa Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroan integratzeko neurriak hartzea; polizia-instalazioen erabilera partekatuari eta zerbitzu komunak sortzeari bidea ematea eta dokumentu, inprimaki eta formulario komunak erabilera sustatzea.

Lankidetzaren hori errazteko tokiko polizia koordinaziorako batzordeen figura sortu zuen lege horrek, eta polizia lankidetzako hitzarmena sinatzea aurreikusi du.

Bigarrena: 2022ko maiatzaren 6an Idazkaritza Saileko AOTk txosten juridikoa emon eban.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Idazkaritza Sailari eta Udaltzaingoa erabagiaren barri emotea.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

## 8.- UMEA ZAINTEKO LANALDIAREN MURRIZKETA ETETEKO ESKARIA ONARTZEA.

### Xedea

Umea zaintzeko lanaldiaren murrizketa eteteko eskaria.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko urtarrilaren 31n \*\*\*0395\*\* NAN zenbakidun bitarteko funtzionarioak 1182 sarrera zenbakiagaz hurrengo eskaria egin eban:

*“Seme-alabak zaintzeko lan murrizketa eskaera, astelehenetik ostiralera egunero ordu biko murrizketa, lanaldi bukareran.*

*Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan 08:00-13:00etara eta astearte eta ostegunetan 08:00-14:00tara lan egitea izango litzateke”*

Bigarrena: 2022ko maiatzaren 12an \*\*\*0395\*\* NAN zenbakidun bitarteko funtzionarioak 5662 sarrera zenbakiagaz hurrengo eskaria egin du:

*“Umea zaintzeko lanaldiaren murrizketa udako ordutegian bertan behera uztea. Hau da, ekainaren 1etik irailaren 16ra.”*

Hirugarrena: Lan murrizketa etetearen arrazoiak hurrengoak dira:



“Umearen zaintzarako onartuta daukadan lan murrizketan eskatutako aldaketaren motibazioa azaltzen,

Berhaz bulegoak neguan daukan ordutegia kontutan hartuta, arratsaldeko ordutegiko murrizketa lortzeko astelehenetik ostiralera egunero ordu biko lan murrizketa eskatu behar izan dot.

Udako ordutegia jarraian, lineala eta arratsalde bakoa danez, ez daukat kontziliazio arazorik, beraz ez dot lan murrizketarik behar.

Aurreko eskaeran bezala lan murrizketa bertan behera ustea ekainaren 1etik irailaren 16ra bitartean. ”

### Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 56. artikulua honako hau ezartzen du:


**“56. artikulua.- Adin txikikoak edo ezindu fisikoak edo psikikoak zaintzeko lizentzia**

1. Hamabi urte baino gutxiago dituen ume bat edo soldatadun jarduerarik egiten ez duen ezindu fisiko edo psikiko bat bere kargura daukan pertsonalak bere lanaldia heren batean edo erdian murrizteko aukera izango du, lanaldiaren hasieran edo amaieran, langile publikoak nahi duen moduan; langilearen ordainsariak zati proportzionalean murriztuko dira, antzinakotasunari dagokiona ere bai. Zortzi urte edo gutxiago dituen ume bat edo soldatadun jarduerarik egiten ez duen ezindu fisiko edo psikiko bat bere kargura daukanak bere lanaldia gutxienez 1/8 eta gehienez erdian murrizteko aukera izango du, ordainsaria zati proportzionalean murriztuz.

2. Legezko zaintza ez da bateragarria izango murrizten den ordutegiaren barruan egindako soldatapeko beste edozein jarduerarekin.

3. Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoera jakin batzuk kenduta, lizentzia hau hamabi hilabeteko epeetan emango da; lizentzia emateko arrazoiak asko aldatuz gero, langile publikoak lanaldi murrizketa aldatu ahal izango du eta lanera itzuli baino 15 egun lehenago, Erakundeari horren berri eman beharko dio.”

Bigarrena: Langileari dagokio ordutegia zehaztea, betiere zerbitzuaren antolaketa-beharrizanak kontuan hartuz, zerbitzuak kalterik izan ez dezan. Kontuan izan behar da Berhazeko egutegia astearteetan eta ostegunetan goiz eta arratsaldez dela. Ondorioz, egun horietako arratsaldeetan ez zuen lanik egingo.



**Hirugarrena:** Enplegatu publikoaren oinarriko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako errege-dekretuaren 48. artikulua honako hau ezartzen du:

*"h) por razones de guarda legal, cuando el funcionario tenga el cuidado directo de algun menor de doce años, de persona mayor que requiera especial dedicación o de una persona con discapacidad que no desarrolle actividad retribuida, tendrá derecho a la reducción de su jornada de trabajo, con la disminución de sus retribuciones que corresponda..."*

**Lauugarrena:** Halaber, emakume eta gizonezkoen berdintasunerako 3/2007 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarrian honako hau ezartzen da:

*"g) El funcionario que, por razones de guarda legal, tenga a su cuidado directo de algun menor de doce años, persona mayor que requiera especial dedicación o a una persona con discapacidad que no desempeñe actividad retribuida, tendrá derecho a la disminución de su jornada de trabajo..."*

**Bosgarrena:** Lan-merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko 3/2012 Legearen Lehenengo xedapen gehigarriko 2. atalean xedatzen du:

*"5. Quien por razones de guarda legal tenga a su cuidado directo algun menor de ocho años o una persona con discapacidad que física, psíquica o sensorial, que no desempeñe una actividad retribuida, tendrá derecho a una reducción de la jornada de trabajo diaria, con la disminución proporcional del salario, entre, al menos un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquella..."*

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:


**BAKARRA:** Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmeneko 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, \*\*\*0395\*\* NAN zenbakidun langileak bere eguneroko lanaldian ordu biko murrizketa egindako eskaera etetea onartzea, ekainaren 1etik irailaren 16ra.

## 9.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

## 10.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Fecha: 24/05/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3



Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orrri oinean sinatzailea eta data*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E60009C2B000V9M0M2P9U4G3

**Sinatua eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 24/05/2022  
 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022  
 12:13:31

DOCUMENTO: 20220639664

Fecha: 24/05/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
 Erregistro nagusia

